

MUSU TRUK

Prestakuntza-programa

Nola irabazi dirua

Musu truk zure

ARIMA DEABRUARI

SALDU GABE



#GETXO
IZEN-EMATEAK
UZTAILAREN 1ETIK
IRAILAREN 10ERA
WWW.KARRASKAN.ORG
#KarraskanEskola

Antolatzailea:

K_RR_SK_N

Diruz lagundua:



25eko irailetik 26ko otsailera.
24 orduko IKASTAROA.

Getxo Sormen Hub
Urgull Kalea, 4,
48991 Getxo, Bizkaia



1. modulua: **Sormenezko garunaren ahalmena ezagutzea.**

Eguna: **2025eko irailak 17, asteazkena.**

Ordutegia: **10:00- 14:00 h** (30 ´atsedenaldia)

_Zergatik da hau historiako momenturik onena sortzaileentzako.

_Ikasi sormenezko adimena zer den eta zure garunak nola funtzionatzen duen.

_Nola atera onura garunari eta sormenezko nortasunari zure lanbidean eta negozioan.

_Zerk egiten nau desberdin eta paregabe, nire balio diferentziala.

_Zehaztu zure indargune eta superbotereak, eta mantendu kontrolpean zure ahulguneak

2. modulua: **Emozioak eta estresa kudeatzea.**

Eguna: **2025eko urriak 15, asteazkena**

Ordutegia: **10:00- 14:00 h** (30 ´atsedenaldia)

_Sormenezko adimena kudeatzeko tresnak.

_Murritzitu zure errumiazio, kezka, estres eta antsietate maila eta sentitu bake mentala eta ongizatea.

_Zure gorputza zure garunaren alde jarduten.

3. modulua: **Sorkuntzak, zerbitzuak eta produktuak.**

Eguna: **2025eko azaroak 19, asteazkena.**

Ordutegia: **10:00- 14:00 h** (30 ´atsedenaldia)

_Diru sarrera pasiboak: zer dira eta nola osatu ditzakete zure diru sarrerak, sortzeko denbora izan dezazun.

_Ezagutu nor den eta zer ekarri zion nire Bezero-Lagunari.

4. modulua: **Ordenatu zure dirua**

Eguna: **2025eko abenduak 17, asteazkena.**

Ordutegia: **10:00- 14:00 h** (30 ´atsedenaldia)

_Zergatik izaten dute sortzaileek harreman txarra diruarekin.

_Dirua vs. sortzeko askatasuna.

_Zeure dirua eta negozioaren dirua antolatu eta kudeatzeko tresnak.

_Finantzak erosoago jarraitzeko eta erabakiak errazago hartzeko tresna bisualak.

5. modulua: **Denboraren plangintza eta kudeaketa.**

Eguna: **2026ko urtarrilak 14, asteazkena.**

Ordutegia: **10:00- 14:00 h** (30 ´atsedenaldia)

_Zergatik izaten dute sortzaileek harreman txarra denboraren kudeaketarekin.

_Urtea, hilabetea, astea eta egunerokoak.

_Denbora antolatu eta kudeatzeko sortzaileentzako berariazko tresnak.

6. modulua: **Branding, komunikazioa, marketina eta salmentak.**

Eguna: **2026ko otsailak 18, asteazkena.**

Ordutegia: **10:00- 14:00 h** (30 ´atsedenaldia)

_Existitzen zarenik ere ez badakite, zure talentuak ez du ezertarako balio.

_Ikusgarritasuna irabazteko tresnak, kanalak eta estrategiak, zeure arima deabruari saldu gabe, iruzur egin edo inoren atzetik ibili gabe, eta etengabe arriskatu beharrik gabe.

_“Giza” marketina offline eta online. Estrategia komertziala.

_Sortzaileei zuzendutako negoziazioa.

Antolatzailea:

K_RR_SK_N

Diruz lagundua:



Prestakuntza-programa

Nola irabazi dirua

Musu truk zure

ARIMA DEABRUARI

SALDU GABE

Sormenean espezializatuta daudenei zuzendutako negozio prestakuntza, zure sormenezko zoriontasuna eta zoriontasun finantzarioa abiapuntu hartuta inpaktua sortzeko, betiere bake mentala eta fokua mantenduz, abenturari uko egin gabe.

**Prestakuntza
amaitutakoan
lortuko duzuna:**

Zure sormenezko nortasunarekiko segurtasun zoragarria

Zure superbotereak zehatz-mehatz ezagutuko dituzu, eta argi ulertuko duzu zure negozioaren arrakastaren gakoa zu zeu izatea dela.

Zure sormenezko negozioaz gozatzeko ibilbide orri pertsonalizatua

Minutu oro dituzun milaka ideien artean aukeratzen jakingo duzu, benetan garrantzitsua dena eta premiazkoa dena desberdinduz, eta erabakiak hartzean zure bake mentala eta fokua mantenduko dituzu, zure ametsak egi bihurtu ahal izateko abenturari uko egin gabe. Ziurgabetasuna, beldurrak eta presak hobe kudeatuko dituzu.

Urte osorako diru sarrerak zure arima deabruari saldu gabe

Salmenta gehiago estres gutxiagorekin. Zurekin lerrokatuta dauden marketin eta salmenta sistemak ezagutu eta onura aterako diezu, eta zorientsu egiten zaituzten lanbidea eta bizitza izateko adina diru sarrera sortuko dituzu haiekin.

PRESTAKUNTZAPROGRAMAREN METODOLOGIA:

Helburua “eginez ikastea” da, modu bisual, atsegin eta hurbilean, lehen pertsonako adibideekin eta bestelako erreferenteen adibideekin.

_Sortzaileentzat berariaz diseinatu diren baliabideak erabiltzea, esparru pertsonaleko, profesionaleko eta negozioaren esparruko eguneroko jardueretan ezartzeko errazak direnak.

_Edukiak berdinetik berdinerara emango dira. Ez du irakasten, lankidetzan eta baterako sorreran aritzen da.

PARTE HARTZAILEAK IZANGO DITUEN BALIABIDE GEHIGARRIAK:

- _Aurkezpenen pdf fitxategiak.
- _Modulu bakoitzeko txantiloiak eta baliabideak deskargatzeko.
- _Ezaguerak zabaltzeko irakurketa gomendioak.
- _Ezaguerak zabaltzeko bideo gomendioak.
- _EC sormenezko negozioen eskolarako baliabideetarako doako sarbidea.

